KARDABERAZ-BAZKUNA
IKASI TA ZABALDU
"AURERA-BETI"

# Berso Beriak

- 1 -

Bertso beri batzuek
Bear ditut jari
Munduko kasuen
Eskarmentagari.
Batzuek joaten dira
Elizara sari,
Fede onari esin
Diote igari,
Jaungoikoak ba-daki
Orlakoen beri.

- 2 -

Alperik egiten det
Makiñabat jardun,
Munduan ba-ditut nik
Diabruak lagun,
Persegitua naue
Bai gau eta egun;
Baña gero isango da
Infernuan t ilun,
Anima txarik ez da
Salbatutzen iñun.

- 3 -

Gaizki ibiltzen danak
Beretzako kalte.
Gauza au egia da
Bai naturalmente;
Anima txarak infernuan
Sartukoya dere jente,
Infernuko Judasekin batzuk
Mundua bai parte
Esta iñor eskarmentatzen
Kondenatu arte.

-4-

Batzuek ¿ezna ta Elisa
Edukitzen goguan
Baña biotzez ibilitzega
Diabruen moduan;
Persona gaiztuak egingo ditu
Leku txarera eruan
Anima txarik esta sartutzen
Sekula ere Zeruan
Orelakoak kondenaukoga
Bai beste munduan.

-5-

Batzuek ¿ezna ta Elisa
Edukitzen mingañez
Baña biotzetik estera
Ibilitzen fiñez;
Orelakoak egingo dira gero
Eternidadeko miñez
Anima salbaturik erik
Sekula ta beiñ ere ez,
Orelakoak egiten dio.
Jaungoikuari, bai gañez.

-6-

Gausiari ematia obeko
Degu itxuriak,
Bestela etorriko zaigue
Sekulako tristuriak
Infernuan sartutzen denari
Sekulako arkuriak. juango zayez
Oren ~~klaru~~ esango ditut
Euskerazko ixtoriak.
Jaungoikua ~~esta~~ engañauko
Munduko inbusteriak.

-7-

Jaungoikua estaigun egin
Ezertan be ofenditu
Obeko degu eitia orain
Gauzak ondo entenditu
Bestela gero Zeruan ezkaitu
Egingo gura ametitu
Emengo pekatuak eingaza
Beste munduan argitu
Infernuko Judasek
Sujetauko gaitu.

-8-

Nik ba-dakit ematen
Gausiari trasa
Kalkulatuta nai ba
Beti nere-kasa
Zeruan sartutzeko
Daukat esperantza
Leku txarrera ezkaitua ba
Gero bada pasa
Infernuan Judas dago
Gusien katapaza.

-9-

Iza ba Jesu-Kristo
Lagundu munduan
Serbituko zaitut nik
Al-dedan moduan;
Iltzen nazanean pentsauko dezu
Ni nora eruan;
Komeni baldin bada
Sartu bai Zeruan
Orduan izango naiz
Leku seguruan.

-10-

Gausa txarrari ez nua ni
Federik artzera,
Baña Jaungoikuán legia
Bastante dijua galtzera;
Anima txarrak juango ya
Padesiuen etxera,
Pekatariak ubaldu eta
Kristandia atzera,
Ortelakuak sartuko dira
Etsai gogoren artera.

-11-

Gausa onerako obeko degu
Eduki ba igarriak,
Gure biotzak baldin ba-dauz
Goristorako jarriak;
Oraindik ikusteko daukogua
Beintzat ixtilu gorriak
Beste munduan pasa bearko
Tormentu izugarriak,
Gure animak izango dira
Orduan erukarriak.

-12-

Jaungoikuak ez gaitzala izan
Bere eskutik salduak
Komeni baldin bada
Ondo lagunduak
Esamiñauko gaitu
Bai beste munduak
Emengo pekatuak
Gero azalduak
Kondenatuko dira
Anima galduak.

-13-

Batzuek egoten dira
Elizarako egarian
Aitzaki asmatu eta
Ibili alperian;
Persona txarari aspalditan
Nago bada igarian
Orelakuak ez dira egoten
Oso fede ederian
Baña gero kontu eman biar
Jaungoikuari aurian.

-14-

Persona txarik eztet egingo
Sekula ere aboriatu,
Orelakuak egiten du
Mundua asko bada enredatu,
Motibo orengatik eiten zaio
Jaungoikuari enfadatu,
Orelakuak iltzen diranian
Egingo dira kondenatu,
Jaungoikuak egingo al ditu
Zeru ederá doriatu.

-15-

Batzuek jardutzen due
Askotan bai erezatzen
Baña biotzetikan
Okerrerako amoratzen;
Orelakuak estue sekulan
Fede onik artzen;
Motibo oregatik zayo
Jaungoikuari asarretzen
Orelakuak egongo dira, gero
Infernuan bai erretzen.

-16-

Egiak biar ditut
Publikuari esan
Gusiak estira esagutzen
Munduko bisitzan;
Batzuek ibiltzen dira
Askotan Elisan,
Biotzetikan beriz
Diabluan kixan,
Orlakuentzat Zeruritk
Ezin leike isan.

-17-

Gausa txar asko egiten
Ba-degu munduan
Leku txarera biarko
Degu gero juan;
Akordatuko zaigu
Eriotzako orduan
Ildakuan sartuko
Gaitu infernuan
Ezkera libratuko
Andik eternuan

-18-

Jaungoikuari artzia
Obe kariñuak
Bestela guretzako
Dira engañuak;
Naikua ematen digu
Oraiñ terminuak
Infernuko garetan
Betiko dañuak,
Ezkaitu libratuko
Andik enpeñuak.

-19-

Ildan gustian juan gaitian
Elisara bai sari,
Baita Jaungoikuari beti
Errespetua ekarri;
Bestela arote gaistoren bat
Egingo zaigu etorri,
Gorotorik estaigun artu
Sekula ere elkarri,
Infernuan sartutzen dana
Izango da erukarri.

Oia ogeiko bertso beri
Euskera eder batian
Ez det uste isango diranik
Geure animen kaltian;
Mundu ontan sayatu gaitian
Jaungoikuan borondatian
Ibilduten gerala
Umil ta pakian
Jeu sartuko gera
Zeruko atian.

---

Arizmendi-Arietaitar Josebik
esanak, 54 urteduna

Markina

Bertso-berriak

## Eriotza

-1-

Eriotzako lezio on bat
Orain asi naiz prestatzen
Entendimentu lotutakua
Baldin ba-nuke askatzen;
Jaun Zerukoa neure premiak
Dizkizut manifestatzen
Zure graziaz jantzi ezkero
Etzaigu asko kostatzen,
Baña bestela eztet balio,
Argatik dizut eskatzen.

-2-

Dudarik gabe il bear degu
Mundura jayo gustiak,
Au darakarte geure fediak
Eta esperientziak.
Baldin personak izatekotan
Juisioak jantzi-yak,
(1) Gloriaturik serbitutzeko -2-
Betiko komenentziyak.
(1) Alde aurretik egin dezagun -1-
Geroko diligentziyak.

-3-

Il bezin laster juan bear degu
Juez onaren aurrera,
Sententzi ori emango duan
Jaunaren tribunalera
Autxe ikusi nai eztuenak
Beren anima galduta.
Alde aurretik aplaka beza
Jesukristoren kolera
Konbertituta jarri gaitezan
Gaiztuak izan ba-gera.

-4-

Anima ori apartatzia
Eztegu gauza bigaña,
Mundu guztiak bildurra dau-kan
Tristia ta iluna,
Gure Jaun goikuak sekretuan
Au da ipiñi diguna;
Seguruantzarik noiz ta nola nun
Batere eztakiguna
Zeinbat geiago ta alderago
Guztioi datorkiguna.

-5-

Beti bilduřic egon lezake
Eriotzari begira
¡Ai! nolakua izango ote-dan
Anima oien partida,
Puntu ortatik juan biar degu
Penara edo gloriora
Egin ditugun obraren biotan
Merezi duan tokira;
Andik geroko damutasunak
Alperik izango dira.

-6-

Eskarmentuan jaři gaitezke
Lenai eřepatuta,
Iltzeko zenbat egoten dira
Luzaro oneratuta;
Pena aundi bat artutzen degu
Gaitz oři begiratuta
Deřepenteko iltziak ere
Legoke ikeratuta
Baldin ez-balda lenagotikan
Auřkitzen preparatuta

-7-

Izanagatik bate luzaro
Bizi izateko ustia
Geure eskuan ezteguena
Jaunak il-gabe uztia;
Zeinbat egunerako edo norekin
Egin dezu ajustia,
Engañatuta bizi zerana
Nai dizut erakustia
Precisamente juan biar degu
Datořenian eskia.

-8-

Beti konforme egon biar degu
Nois konbenidan iltzeko,
Jaunagandikan datořenian
Eriotzian artzeko,
Berak kriadu ginduzan eta
Bera dago agintzeko:
Motiborikan eztankagu
Eskusarik ipintzeko,
Anima garbi gorde dezagun
Jabiari eskeintzeko.

-9-

Partutakuak bizi diriala
Ez izan dute gaztia
Auiera ere ezta seguru
Bata ezpata bestia.
Obra onetan gaztetatikan
Obeto degu astia.
Peligrosue da konbertitzia
Beti geroko istia
Kondenatzeko estaduan dago
Aren anima tristia.

-10-

Despedida txaria generalian
Bisitaa trastornatuak,
Ibitora espodirade
Lenguas konpormatuak
Zuzen etorzen eztiriala
Jaunarekingo kontuak
Eternidadeko ayen eguzak
Dirade txit penatuak.
Ordu bat ere onik eztauka
Anima kondenatuak.

-11-

¡Ai! inpernuko tormentu ayek
Dirade izugariak
Su ta garetan beti kixkaltzen
Gose ta egariak
Kondenatuak an egoteko
Betiko daude jariak
Bener eztira beteko ayen
Plazo edo neuriak,
Zergatik ziran gaiztakeriak
Pisutzu ta lariak

-12-

Jaungoiko ona ofenditzia
Degu, asunto gatxbia
Zergatik dan ontasun utsa
Zeru luriaren jaubia
Kriadore ta Redentoria
Bai eu Salbadoria,
Jakintsu ta poderosua,
Iñun parerik gabia
Jaun ori amatutia
Izango degu obia.

-13-

Ea animo nenre kristauak
Oraiñ munduan gaudenak
Gaiztuentzako egiñak dira
Infernuetako penak;
Padesitzera dijuaz tela
Ala meresi dutenak;
Kontuak garbi prestatu ditzagun
Norberen animarenak;
Jesus'ek, dio, betor nigana
Ni serbitutzen nauzenak.

-14-

Baldin mantzarik ba-daukagu
Geuren animen kaltian
Konbertitu eta Jesus'en gana
Len-bait-len jaii gaitian
Geuren deseo eta Jaunaren
Lagundezarekin batian
Demoniñuak lotu baño len
Kalabozoko katian
Erremedio bila deragun
Munduan gaudan artian.

-15-

Zerutako gloria dela
Gauza pare gabekua
Justo guztiak an egoteko
Apropos egiñ dakiuek;
Alabatutzen beti presente
Dakuskaten Jaungoikuak
Bienabenturaduan compañia da
Klase gozenekua
An sartzen danak dauka betiko
Ditxa zoriontekua.

-16-

Zeruan bizi diriaenetan
dirade klase jakiñak
Dominanek, Potestadiak
Trono eta Kerubiñak
Eta gainera Printzipaduak
Eta gero Serapiñak
Ozer dirade, aingeru utsak
Zeruan bertan egiñak
Gainerakuak mundutik juanak
Anima garbi eta fiñak

-17-

Mundutik juanak daude Zeruan
Anima iñozentiak
Gañerakuak pekatariak
Ziraden penitentiak
Zentarinak oso benzitu
Zituzten balientiak
Alakuentzat zabaltzen dira
Zerutako atiak
Jesus'ek berak deitzen die
Atozte sena maitiak.

-18-

Gaiztorik ezta bat ere sartzen
Zerutako atian
Guziak onak dijuaz eta
Bizi dira bakian
Munduan ere ongo bizitza
Egiten asi gaitian,
Gustiak alkar estimatzia
Ezta inoren kaltian,
Ezaguerara sartuko gera
Noisbait egun batian

-19-

Gure Jaungoikua amatutzeko
Kargua artu genduan
Eta projimua gu bezela;
Kristauak zenbat lan duan
Naturalesa argala degu
Zentariua munduan
Pekatarien Ama maitia
Gaude paraje galduan
Gorde gaitzazu orain eta beti
Geure eriotzako orduan.

-20-

Bizitza onak, eriotza ona
Dakar generalian
Munduan onetan saya gaitezan
Bisiuakin pelean;
Ejemplo onak eman ditzagun
Norberak egiñalian
Bildurtiari segitutzia
Obe da igualian
Sentenzi ona adi dezagun
Jaunaren tribunalian,

- 21 -

Alegiñian saya gaitesen
Geure bisitza onean
konsuelotan gertatutzeko
Iltzia datorenian
Destierruko bale tristian
Igarotzen degunian
Jesus maitea artu gaitzazu
Zeuren aldamenian
Zu alabatzen an egoteko
Betiko zoriunian.

- 22 -

Bertso ~~bii~~ oyek kunbeni dira
Kristandadeko legian,
Papelak artu eta ikasi,
Obratu berebizian
Bitorioso irten dezagun
Etsayetako auzian
Eriotza ona egin dezagun
Jaungoikuaren grazian
Zeu gloria gora dezagun
Eternidade gusian.

Ariz mendi-Irietatar Joze be'k
esanak 54 urtedunak
Markina

# Markesarena

-1-

Zeruak eta lurrak
Egin zituana
Memoria argitzen
Atoz nere gana

-2-

Esperantza ba-dauka
Zerorrek emana,
Kunplitu ko dedana
Desio dedana

-3-

Amoriozko penak
Bertso berrietan
Publikatu al-ba nezake
Euskal-Errietan.

-4-

Enteratu naz ongi
Enkargu oyetan
San Jose arratsaldeko
Iruntxerdietan.

-5-

Markesaren alaba
Interesatua
Marinelarekin
Enamoratua

-6-

Deskubritu bagenik
Bere sekretua
Amorioa zeukan
Barrena sartua

-7-

Egun señalatua zan
Goguan artzeko
Esan ziola arekk
Etzera juateko

-8-

"Desio dedan itzaz
Manifestatzeko
Zurekin Antonio
Nago izateko —

-9-

— "Zer esaten didazu
Juanita, itz ori
Ezait zeure gradurik
Tokatutzen neuri;
Ez burlarikan egin
Mariñe luari.

-10-

— "Iduki nazakezu
Ongi siñestua
Aspaldian naguala
Zengaz gustatua" —
"Etzaitut nenk utziko
Desanparatua,
Alan egiten dizut
Gaur juramentua" —

-11-

Konformatu ziraden
Alkaren artian
Ezkonduko sirala
Urengo urtian;
Eskolak ikasteko
Bien bitartian,

Beraren eritikan
Guztiz apartian.

-12-

Alan disponiturik
Jaii ziran biak
Formalidadiakin
Jartzeko egiak
Bañan etziran lo egon
Amaren begiak.

-13-

Amak esaten dio:
— ¡Juanita neuria!
Galdu da diotenez
Antonio Maria
Nenk bilatuko dizut
Beste bat obia
Mayorazko, interes
Askoren jaubia.

-14-

— "Ee neuri esan, Ama,
Orelakori kan
Eztet neuk besteßana
Amoriori kan."
"Konbenentsi ona
Egonagati kan
Ezin alegrau leike
Neure bareñikan." —

-15-

— "Utsi, utsi, alde batera
Orelako lanak;
Eztitut neuk ikusten
Zu besela danak."
"Nai ba dituzu artu
Ondra ta famak
Giatuko zaituzte
Aitak eta Amak." —

-16-

Au da lendabisiko
Esan zenduana
Zer da musika arek
Ondratzen duana?"

Markesaren alaba
Kalian barena
Esposario zala
Ar... biar zuana.

-17-

Desmayaturik egin
Zuan ordu bete
Gero nobia eske
Ltz bi egin arte
Zorgunatu sitzayon
Makiñabat gente
Bigarren orduako
Eltzan deicpente.

-18-

Gaba pasatu eta
Urrengo goisian
Enterrua zuan
Bigarren klasian
Markesaren alaba
Gustien atzian
Ze pena oi-ete zan
Aren biotzian

-19-

Eremedian ba-legi
Sentimentu on
Bitarteko bat jari
Jesus maitiari
Orasio egiñez
Birjiña Amari
Zeruan gertu dedin
Antonio Mari.

-20-

Altzaren konpañian
Guk ere nai degu
Birjiña egiozu
Jamari eregu.
Kristau guztiokaitik
Baldin ab-ba'gendu
Yturriño'k orelan
Desiatutzen du.

Arismendi-Arieta'tar Josebe'k
esanak 54 urtedunak

Markina

# Loria

-1-

Loriak udan ontza bezela
Uaté dot dama gazte bat
Ori ain beste gura deutsenik
Ezta munduan beste bat.
Ikusi-gabe iñoz edo bein
Pasatzen bada aste bat
Biotz guztia banatzeten zait
¡Alako gauza triste bat!

-2-

Neskatxa gazte paregabia
Apiril-eko larósa
Izará bezin dis-ditzatea
Txoria bezin airosa.
Oraintxe baño gusto geiago
Nik ezin gosa
Loriorian ikusten zaitut
Nere biotzak dauka poza.

-3-

piña gorputza, beiñ
Ez dago zer esanikan
Izketan, nere grasia ederá
Ez dezu ezer txarikan.
Mundu-guztia ikusita be
Zu bezelakorikan
Akaso izan liteke baña
Ez det uste danikan.

-4-

Nere betiko pentsamentua
Zugan pozgaria
Zu gabe ni ezin bizi naiz
Esaten dizut egia

-5-

Palta dutenak itz egitia
Topatzen dot ondo;
Eta nik ere saya bear det
Al-ba-gintezke ondo konpondu
Oregatik gallentzat lau
Gura dozun negar eskondu.

-6-

Ezkondutzia izan bear du
Preciso gauza txarren bat
Ala esaten aditu izan zait
Nere konsejatzale bat.

Madariaga eta Gantiaga'tar
Josebite esanak, 68 urtedunna
Markina

~ Viva el buen humor ~

- — .

Qué favor nos haria
Jaun ta Jaungoikuak
Si quiera atender
Gure otoitzanak
Que no mojen con agua
Goiko orritzuak
Sino con rica sidras
Gusto onekuak
Y si riegan con sidra
Oroi zerukoak
Seguramente somos
Gizon betikoak
Al menos no muy facil
Ta azkar iltzekoak
Pues alarga la vida
Gure sagarduak
Si no es de las que están
Lendik batatuak
Tambien suele producir
Gizon mozkortuak
Mas si las prueban kantan
Ez gera ore lakuak
Pues nadie nos ha visto
Zentzuna galduak
Aunque si alguna vez
Zerbait xerbelduak.

-1932-

(Eskuz idatzitako paper zar batean arkituak dira — Orexa)

## Aita-Semien Alkar-izketa

1ª

(Semiak) — Amerikara nua nere borondatez
Aspertu naizelako emengo izatez
Juan bearko det ba-nai ba-det eta ez
Emen gelditzen dianak ondo bizi bitez.

(Aitak) — -2ª

Beste seme bat ere ba-det Amerikan
Oraintxen ogei urte ara juan zikan
Bilatzen baldin badek ara bideri kan
Esayok bizi dala aita oraindik an.

3ª

(Semiak) — Ba dakigu dauana gurion burua
Uraren zimendua ez da segurtua
Bilatzen baldin badet Amerikarakua
Laister egingo diot zure mandatua.

-4-

(Aitak) Larogei urte etara nago aitzeita
Emengo bizi moduari ondo irtzita
Karidadeko ~~[illegible]~~ bentara egitea det bisita
Lastima il beara onela bizita.

(Lemiak) — Ene maizter edo Etxe-nagusiak
Izan zaitezte beti gauzari eutsiak
Ez giñan aberasteko jayo guztiak
Baña nai dute jakin angoko notiziak

Patxi Belarretta'k esanak
98 urteduna
Elgoibar

Ama-Lemiak

X 1ª

(Amak) — Amerikara ara ere borondatez
Aspertu aizelako emengo suertez.
Len andregai osko eta oraiñ baterez
Egiten zualako erretiratu ez -

2ª

(Lemiak) — Oraiñ pasiatzen det beti egun argiz
Batzuetan oñez ta bestietan zaldiz
Kapia artutzen det egunian bi aldiz
*Ai zer bizi modua Donostian baliz.

(Patxi Belarretta'k esanak 98 urtedun

~ Osaba-ilobak alkari ~
bota'tako bertsuak.

(Ilobak) 1ª

Nere osaba Jose Benardo
Etxian baldin ba-dago
Eiinkizunen bat
Ez baldin ba-dauka
Ate ondorano betor.
Berorek ere dakiena da
Agindua isaten dala zor.
Bera jayotzan oyaren bila
Iloba oraintxe dator.

2ª

(Osabak)

Nere iloba maitagaria
Ongi etori zerala.
Zu jayo ziñan oi ura bera
Preotanko det beriala.
Maindera txuri ederarekin
Pardelak dexizkiela.
Sinix ta zazu biotzetikan
Oso maite zaitudala

(Patxi Bedarreta'k esanak
58 urtedunia. Elgoibar.)

# Kontxexiri

-1-

Indar aundiko gauza bateri
Bertsuak jartzera narama
Kontxexi zuri nai disut eman
Meresi dezun fama
Gure Probintzi Gipuzko ontan
Igualik ez dezun dama
Bedeinkatua izan dedila
Zu egin zinduzen dama.

-2-

Ezeparua ipiñi nizun
Zeorek etzekizula
Lendabiziko oñetara-ta
Ureña beriz geñira.
Oñak ditusu txiki politak
Gustagaria txit dira.
Zure gerian eman lozker
Kana bat zintaz bi gira.

-3-

Atzetik jarri nitzan denboran
Begiratuaz lepora
Nere biotza asi zitzaidan

eiten nairikan kanpora
Erten da ere ba dakit ziertu
Juango zala zure kolkora.
Nai zenduña zuk, jakitera
Utziko nizun gustora.

-4-

Ureña beriz ereparua
Ipiñi nizun petxura
Orduantxe bai artu nizula
Aingeru baten itxura
Zure Jaunkuak deitu izan ba dit.
Igo nedila Zerura.
Zure ondotik juan biarak
Emango ziran tristura.

-5-

Ureña beriz ereparua
Ipiñi nizun burnan
Zure ulia konparatzeko
Zerarik ez da munduan
Zrentza egiñik zenduklan bada.
Eregin baten moduan.

Diamantezko koroi eder bat
Palta zitzaizun burnan.

-6-

Ureña beriz ereparua
Begietara sepiran
Ez dakit bada begiak edo
Eguzki eder bi ziran
Ondo ipiñi ez
Nola esango zer ziran
Begiratutzen nizun guzian
Biota kendutzen zeñi.ran.

-7-

Grasiak mila petxuan
Lepo biribil dirudiena
Egin beria tormuan
Arpegi piña, begi argiak
Ule ederra buruan
Zu baño Aingeru ederragorik
Ez da egongo Zeruan.

Paki Belaŕeta'k (izengotia) esanak-
58 urteduna- Elgoibar-

# Santa Agedaren alabantzak

R

- 1ª -

Bedeinkatua izan dedila
Etxe ontako jendea
Pobre ta umil dabiltenentzat
Badute borondatea

- 2ª -

Etxe ontako jendea
dago ernkiz betea
Jaun soberanoak eman dagiela
Osasuna eta pakea.

- 3ª -

Libertadea eskatzen diogu
Etxeko principalari
Santa Agedaren alabantzak
kantatzera noa ni

- 4ª -

Graziak diozkat ipini
Santa bedeinkatu oni
Kristandade onen izena
Beti bedeinkatu bedi.

5ª

Nork esango du zerpasa, zuan
Munduan Santa Agedak
Lendabisiko arotatuta
Kendu siozkaten bularrak.

- 6ª -

Gorrotoaren indarrak
Jentilen biotz gogorrak
Momentu batean estali ziun
Gorputz guztia odolak.

7ª

Santa au preso sartu zanean
Zan milagro bat aundia
Zerutatik jetxi zitzayon
Jaungoikoaren argia.

8ª

¡Milagro ikaragarriak!
¡Santa onen alegria!
San. Pedro jaunak sendatu zion
Santari gorputz guztia.

- 9.ª -

Beriz Enperadoreak dio
Eramateko argana
Donzela onek bere biotza
Len besin firme darama.

- 10 -

Yesusek berak emana
Oraiñ berekin duana
Zer amorio aundia zuan
Gure Jaungoikoagana.

- 11 -

Galdetzen dio Enperadoreak
Leñen zegoen ixilik ...
- Zuen idolo Junko falso ori
Adoratuko ez det nik.

- 12 -

Donzela onen martirioa
Zenbateraño koa ote zan
Santa Agedak onen gañean
Itz bi nai nituke esan.

- 13 -

Batere bildurtzen etzan
Jentilen atzaparietan
Bada emendik Konsideratu
Santa onen bisitza zer zan

- 14 -

Beriz Jentilen eskuetatik
Sartu zan Kalabozoan
Aforiako ordu santua
Ongi ezagutu zuan.

- 15 -

Iltzen zegoen orduan
Jesusi otka zegoan
Oraiñ gloria goratzen dago
Aingeruakin Zeruan.

- 16 -

Au izandu zan martiriuaren
Azkenengo egun gozoa
Arteraño ere beti izan zan
Biotzez Jaungoikozkoa -

- 17 -

Biotz amoriotzekoa
Jaunak eman dakoa
Ala igozan Zerutara
Aren anima justua -

-18-
Kristau deboto batzuek zuan
Gorpurtz santu ura aitu
Katalunikо sindadean
Baita ere enteratu.

-19-
Kristauak: Konsideratu
Au nola zan gertatu
Karidadea egiten duenai
Berak oi die pagatu.

-20-
Adios orain esaten diot
Santa oiekin batean
Urte outxo bat pasa bezate
Osasunakin pakean.

-21-
Pobreak geren artean
Aren eiñki gaitean
Karidadeak sartu gaitean
Zeruetako atean.

-1932-

Malkoa'tar Yosebek esanak, 84 urtedunа

Orexa

## Santa Ageda

α

-1ª-

Oles, oles etxekuak
Emen gatoz eskeikuak
Amabi mutil bekoki argi
Danok gara moduskuak.

-2ª

Solomo gorin bindie
Aren koipien dultzie
Latinik kentzen ibili barik
Ekarri egizu guztie.

3ª

Saltoka saltoka ibiltzen da
Txikau artian nirue
Nire lagunak artuko dautze
Zuria balitz dirue.

Ibarrangelua

---

## Erege Magoak

X

1ª

Iru Erege Magoak
Jentilak dirade
Jesus adoratzera
Etorri dirade-

2ª

Goasen gabiltzan bada
Saltoka bidean
Zeruko Eregea Jesus
Arkitu artean -

1932 Seguro la'tar Josebek
Izanak 58 urtedunak.

Onexa

1.ª
Eregeak datoz
Eregeak datoz
Kalean barena
Bretxan barena
Ardoz bete-beterik
Ardoz bete-beterik
Ezin egon tantik
Ezin egon tantik
Gasparek eltzen dio
Meltxorri besotik
Ez juntuiez aurrera
Erortzea gatik
Erortzeagatik -

Ormaiztegi
"

Egoaritakoak

1.ª
Artzai buru txuri bi
Anton eta Peru
Belengo estalpera
Etorri zaizkigu.

2.ª
Sartu ziran barena
Emanueltxon gana
Presente egin diote
Arkumetxo bana.

3.ª
Artzaiak datoz
Saltoka, brinkoka
Mendian barena
Jesus adoratzera
Aldan laxterena

Patxi Zelaieta'k esanak
88 urtedunna
Elgoibar

Moxoŕotako abestiak- (Orexa)

1ª

- Nagusi Jaunak, aurera:
Erebentzia lurera
Latsa gerala etoŕi gera
Jauna beoŕen aurera.

2ª

Bedeinkatua isan dedila
Etxe ontako jendea
Pobre ta humil dabilenentzat
Ba-dute borondatea.

3ª

Ar goyen goyen isaŕa
Eŕekaldian lisaŕa
Etxe ontako nagu Jaunak
Uŕe goŕiz du bizaŕa-

4ª

Uŕe goŕiz du bizaŕa eta
Diamantezko espalda
Beoŕi besin gison presturik
Eŕi onetan ez-alda-

5ª

Ar goyen goyen oŀo bi
Batak bestia iduri.

Etxe ontako etxekoandreak
Ama Birjiña dirudi.

6ª

Ar goien goien otea
Dena lorea betea
Etxe ontako alabatxoak
Kopriau dauka dotea.

7ª

Etxe ontako Maria
Esango diot egia
Ainbat laxterien bilatu beza
Oŀo pintoaren Kabia.

8ª

Or goien goien sapaia
Estua edo lasaia
Oŀoren batek egon biar du
Aŕaultza arekin Kabian-

9ª

Limozna ere artu degu ta
Oraiñ abitu gaitean
Adios'ikan ez degu eta
Agur ikusi artian-

Egoari-takoak

X

Bart Belenen
Bart Belenen
Jaio da Jesus
Belenen -

2ª

Artu makilak eta
Jantzi abarkak
Artzayak joan ziraden
Jesusen bila -

3ª

Ai! zer alegria dan
Dantzan jende gusia
Salto, brinko egiñik
Danak joan ziran.

4ª

Ypu Aingeru datoz (bis)
Zerutikan datoz (bis)
Balkia berotuta ta
Diru eske datoz -

5ª

Goiko mendietatik
Pastoriak datoz
~~Esanik~~ Aingeruak
Jaio dala Jesus.

6ª

Espiritu Santuak
Emanik grazia
Aren konzeziona
Beti da garbia.

7ª

Alegratu gaitezan
Gaurko gabarekin
Gure Jesus onaren
Etorriarekin.

8ª

Belengo portalian
Estalpe batian
Jaio da ~~[illegible]~~ Jesus ona
Ganatu artian

9ª

Idia ta astua
Daukaz aldamenian

Arnasaz berotzeko
Ostutzen danian

Estribiloa 10
Alegratu gaitezen
Gaurko gabarekin
Gure Jesus ona
Etorriarekin.

11.ª
Ogeita laugarena
Degu Abenduan
Deseo genduena
Irítzi genduan.

12.ª
Gabeko amabiak
Jo duten orduan
Jaio da Jesus ona
Ganadu artian

Estribiloa
Alegratu gaitezen
Gaurko gabarekin
Gure Jesus onaren
Etorriarekin.

~ Eregenetan ~

X Iru Eregeak dator } bis
Oroien artetik
Munduan
Erodez Eregia
Inbidias betia }
Bildurtutzen asi zan } bis

X Eregeak dator (bis)
Beltzor barena
Ikatza erostera
Zxanpon batena

X Beltzor ta Kaspar
Bidean azkar azkar
Baldasar erege
Jaun ura Erege
Bisitatutzeko
iruroh juan ziraden
Jesus bilatzera

Ondarrun batuak

~ Gabonetan ~

Gabon gabon xeta
Kaltza lairozeta
Jesus jaio da ta
Jo daigun kriskreta
Kris, kris, kris
Ysidro matraulo
Pedro arekin
Jo daigun tamboriñori
Jaiki bidekin.

---

Urte barri barri
Txarri belarri
Daukanak ez daukenari
Katilu bete gari.

---

X Sominu santuru, santuru
Txarri aundi bat il dogu
Bestena ez bestie jan dogu
Beran jateko, beran jateko
Opil aundi bat biogu.

---

Etxebarria (Markina)

~ Urte barri ~

Urte barri barri
Txarri belarri
Daukonak ez daukonari
Emotie sarri
Lau intxaurtxu
Lau gastaña
A la montaña
Tiri, tiri, taña
Urte zarrak joan da
Barrijak etorri
Niri eman biarkozu
Urte barri txarri,

---

Ybarrangelua

+

# Patxiri

1ª

Kantatzera nua
Patxi motzen gaitza
Bere tripak aspaldi
Asaře dabiltza;
Saritan sortzen zaio
Barřuan ekaitza
Apurtuko lekana
Gubotoko aitza.

- 2ª -

Su onduan jařita
Piři ta paŕa
Alde guztietara
Dario uzkaŕa;
Auspo biařik ez ta
Piztutzeko su-gaŕa-,
Kuriosua dago
Gure mutil-zaŕa-

— 3ª —

Arto, esne, gaztaña
Baba ta sagaŕa
Baseřirako ez da
Munizio txaŕa;
Nais auzokuak egin
Burla ta paŕa,
Patxi guriak majo
Jotzen du adaŕa.

— 4ª —

Galtzak uŕaturik kau
Dabiltzki atzian
Luřa daŕdaratzen du
Uzkar lakoitzean;
Artilero jartzeko
Gerako outzian
Beste oŕelako bat
Ez da probintzian.

- 5ª -

Uzkaŕaren indaŕa
Dago agirian,
Patxi dabil aposta
Nois egin naian;
Jaŕtzen ba-zaio iñor
Atzetik parian
Bota baietz amaika
Legua aldian.

- 6ª -

Pake aldia izaten
Ba-du unetan
Ixildu gabe dago
Gainero egunetan;
Polka-mazurka ondo
Jotzen du kornetan

Patxiren kurneta.

- 7ª -

Eripa jartzen danian
Gastañaz beteta
Soñua jotzeko dauka
Sekulako beta
Goizian diana
Gabian řetreta
Ixildu gabe dago
Patxiren kornetta.

- 8ª -

Txakuřak zaunka
Astuak ařantza
Soñ eder orekin
Gaste askok dantza;
Freskoxamařak dauzka
Gibela ta gatza,
Hizeak galdu biar
Dijoaz buskantza

9ª

Patxi gaixoak nairik
Garbitu baña
Pozikan suřut-egin
Du musu laña;
Orain tripak egiten
Diote orua,
Poltzetikan etzaio
Paltako tsořua.

- 10 -

Komunera istera
Or dabil saltoka
Patxi gaxoak ba-du
Naikoa matraka
Itxi ezinik beriz
Atzeko ataka
Ixilik zirin-zirin
Dariola kaka.

- 11 -

Galketan zulua ta
Handik jarijua
Muestran ageri da
Dankan oliva;
Guziriek jakin
Bere baliva
Munduan ba-dan kak
Purgatorijua.

12

Bost ~~arto~~ libra arto ore
Beronik irentsi
Este lasaiak ditu
Ainbestian itxi
Jaripua oraindik
Ba-du, baña gutxi
Luzaro ondo bizi
Zaite; agur Patxi.

Lenago argitalduak dira.
Paper zar baten irakurri
dodaz. Arizmendi'tar J.

Neska mutil bi

(Mutilak ataritik:)
Atia kiskos jo nion
Baña ez euotan korresponditzen
Bigarenian jo nionian:
(Neskak ~~atantik~~ gañetik)
— Galaya zer nai zenduke ?—
M— "Zeoren borondatia balitz
Biok lo egitia nai nuke"
N— "Ama gueña dispara dago
Sentitu egingo ginduzke —
M— Ama zuria lotara arte
Atarian egongo giñake —
N— Gure atarian aizia presko
Otzitu egingo giñake —
M— Nire kapia, magala zabal,
Biok batuko giñake —
N— Batak tira ta bestiak tira
Urratu egingo genduke —
M— Gure erian oyala merke
Barri bat egingo genduke —
N— Atiak ere karaxi ta karan,
Eta txakurrak ere saltatu —

M— Atia ere konjuratu
Eta txakura ogiaz isildu—
N.— Gure txakurak isildutekо
Eper bisia bear du. ~~m~~
Eper bisiaz arapatzeko
Mutil mantsua zera zu—
M— Dana gaztia atzekiosa
Atzeki asko ba-dezu ere
Nik eramango zaitut zu.

1933

Madariaga eta Gandiaga'tar
Joseba'k esan ak
68 urtedуna

Markina

~~~ Beyarenak ~~~

— 1ª —

Sujeto bati
Astu nion beya;
Nere arimarentzat
Langaren etsaya
Askoke daukagu
Alkar engañatu naya
Bertsuak ipintzeko
Ori dizkeya.

— 2ª —

Oin idi baten trukea
Bei ori artua
Gorputsa prijitzeko
Etxian sartua
Gatza ere gatza zan
Egiña tratua;
Fiatsen dana dago
Gaur engañatua.

3ª

Sei ilabetez beia
Zeukala ernari
Beste zorki pasau ta
~~~

Etxuan agiri
Bederatsi Juztuan
Etzebilen ori
Lege saiak mudatu
Dirala dirudi.

4ª

Eztulak ere sobra
Aditu niz kion
Umiak eragiten ziola
Zizkijon
Ajenik zedukanik
Zuolaz ere ezin esan
Bildur naz oraintxe
Zer pasatuko zayon.

5ª

Umia egin sion
Ez sano gelditu
Lanian plojua
Ta eztula añaditu.
Esne gutsi ta joka
On il biar gaitu
Joxeparentzat beiak
Bentaja onak ditu.

— 6ª —

Andriak diare:
— "Gisona zer zabiltz?
— " Beja jotzen ari naiz
Oba il'go balitz" "
Orekin toriman
Alperitkan gabiltz
Oba san
Ukusi ezpalitz" —

7ª

Joka ibili ta
Beyak esne gutsi
Dana ezin kendu
Eriapera joan eta
Ostikada egiten du
Aurten ezin nezaket
Umiak mantendu
Salduko nuke pozik
Nork artu ba-gendu

---

1934 - VI - 19 -
Ariaga'tar Joxe-bek
esanak 96 urtekua
Markiña -

~~~ Morena ~~~

1ª

Erantori'eko ei-dauko bai
Katua formala
Geiriien bere estago Morena
Entero argala.

- 2ª -

Berrogeitamar erralde
Zerbait gutxiago
Erotako pisuetan
Pixaturik dago-

- 3ª -

Goiko sala barrian
Eman orri gatza
Artuko ete-dauotan
Daukat bildur/latza.

- 4ª -

Bare sariak ere
Pitzar bete koipe
Gaztiak, ¿mun entzun-da
Beste orrenbeste?-

- 5ª -

Gautsak ere ba ditu
Ikaragarriak
Erraultituko lituke
Erotako arriak.

- 6ª -

Abadiari eman niori
Erregalu, mortzila
Ezpanak koipez tanta
Dabil mutila.

- 7ª -

Surmuitz eta belarri
San Kristobal'eko
Auzoko nesk[a] zarrak
Alkarrez jateko-

1933'

Madariaga, ta Gandiaga'tar
Josebari entzunak
68 urtekua

Markina
~~~

Txakuriarenak = -Beste era batera - ori bera -

1ª

Txakur txiki gorritxo bat
Paltatu zait niri
Nrato ezkutatu zan
Eta ez da agiri.

- 2ª -

Mantiolan eriotari.
Elurditik bera
Nere txakur goritxoa
Ark berak ile da -

3ª

Eztiot maldisio ik
Bota nai iñori
Artaz baliatu dana
Ongi bizi bedi -

- 1932 -

Malkorra'tar Josebek
esana 84 urtekua

Orexa

---

Mantxolako eriotarie
Gisou abila
Nere txakur txikiya
Ark berak ila
Beriarekin eskian
Or ibiliza
Zerbait bildu nai luke
Ark jamelira.

- 1932 -

Legarreta'tar Josebek
esanak 88 urtedunak

Orexa

# Fandango eta Trikiti abestiak.

## Lenengoko kuak

1ª

Ibitzen ba-nair aritzen
Gazte onek dibertitzen
Gu onela ikusi-ta
Ez ba-zera erukitzen

-2-

Nere nobiyaren ama
Asto baten gabe dana
Aretzek ekarriko digu
Etxian bear dan dana.

-3-

Gure auzoko mutil batek
Zapan eidu nobixia
Nenk ez dot ezagutzen baña
Izan bear dau ruibixia.

4ª

Mendirik-mendi lañua
Pagorik pago usua
Ez dala iñez aipatzen
Mayorazkuen pausua.

## Bigarengoko kuak

1ª

Bata det akabatu
Beria dot asi (bis)
Alegrementian
Gura neuke ~~(neuke)~~ bisi
Ole morena ~~gura~~
Gura neuke bisi.

-2-

Ba-dakit ditu-zuna
Bat eta bi ere (bis)
Zulango baten paltan
Ez nago ni ere
Ole morena
Ez nago ni ere-

- 3ª

Oraingo mutiltxuak
Zer dute merezi (bis)
Lisiban egosita
Sasian esegi
Ole morena
Sasian esegi

— Lenengo kuak —

— 5ª —

X Pandero txiki beria
Laztkautik ekaria
Amar erial pagatuta
Ez da urie goria —

— 6ª —

X Etxasuan ura lodi
Ez dau ondorik agiri
Nere maitia ikustiaren
Pasauko neuke igari

— 7ª —

Mutilak daude pentsatzen
Pentsatzen eta fumatzen
Nori esango ote dioteben
Eldu dankeara pixkaten

— 8ª —

X Nere maitia zer deu
Kolore txaria daukazu
Kolore ori goritzeko
Metal ura evan biar dezu.

— Bigarrengo kuak —

— 4ª —

X Ziri ki tauki tauki
Matuaren otsa } bis
Laister ezkontzen dala
Mari ankamotza
Ole morena
Mari ankamotza

— 5ª —

X Aratetikan bera
Atian atian } bis
Neskarik ederena
Laurleko batian
Ole morena
Laurleko batian

— 6ª —

X Urruku tuku-tuku
Ez neri ukatu } bis
Ama gambaran; da-ta
Sentiruko gaitu
Ole morena
Sentiruko gaitu

~ Lenengo kuak ~

-9ª-

X Santa Efemiako zelaian
Ez naiz izan aspaldian
Zelai ederagorikan
Apenas dagon Bizkaian

-10-

X Tristerik nago tristerik
Senara daukat gaisorik
Ez nuke gura baña
Laister bear det bera bagik

-11-

X Neskatilā tantxeneta
Ederá deen kopeta
Zure soñeko eropa orek
Amar dozena kortxeta

-12-

X Altuan dago S. Antonio
Beran an Madalenia
Aren bien bitartian
Txakurzulo trabenia.

~ Bigarren gokuak ~

7ª

X Mayatzeko larosa
Eder krabelina } bis
Kolore zuri-gori
Mundu engañosa.
Ole morena
Mundu engañosa.

8ª

X Ederá zarila
Pentsatzen ba-dotzu } bis
Or-lango mutil orek
Engañauko zaitu
Ole morena
Engañako zaitu

-9ª-

X Urkiola buruko } bis
Aizearen otsa
Antxe ikusi nuen
Praile ~~burua~~ kaska mutza.
Ole morena
Praile kaska motza.

- Lenengo kantak -

- 13 -

No te cases con Luxi
Porque tiene diru gutxi
Casate con la Maria
Porque tiene loteria.

- 14 -

X Bilbo Bilbo esaten dabe
Ez dago Bilbo'tan gorik
Ardotan; erango neuke
Zaragi bat oso osorik

- 15 -

X Bilbo zaarreko atenak
Zarzarrak eta paltsuak
Ardotan erango leuke
Oian azpiko laotuak

16

X Ederregia zera zu
Sornan bearrerako
Artu zizu Kabaterua
Saloya pasiatutzeko -

17

Maria ta Erramon'atzu
Ysabela labradora
28 nobios ~~tengo~~ teneis
T Haota treinta no hay parada-

AZKENA

- Bigarrengo kantak -

- 10 -

X Esperiak kantatzen du
Arrate batian {bis
Neskaiak politenak
San Pedro batian
Ole morena
San Pedro batian.

- 11 -

X Ederra zera baña
Etzera larrosa {bis
Kolore txuri-gorri
Mundu engañosa
Ole morena
Mundu engañosa -

- 12 -

X Arrateko zelaiako
Lirio loria {bis
Andixek gora dago
- Zerura bidia -
ole morena - zerura bidia.

- 13 -

X Arrateko pikuak
Iru magal ditu {bis

— Bigarren gatunak —

Eibar'ko armeruak
Igerak jan ditu
Ole morena
Igerak jan ditu

— 14 —

X Urkiola buruko }
Paguan oudean } bis
Zer esan zenduan
Eukizu gogoan
Ole morena
Eukizu gogoan

— 15 —

X Atuna ta aguria }
Asarretu dira } bis
Atso demoniñuak
Praketatik tira
Ole morena
Praketatik tira

— 16 —

X Ama buruan miñ dot }
Artajorako } bis
Gonia plantzau biot
Eromenirako
Ole morena
Eromenirako —

— 17 —

X Lorentzokeak egin ei dau }
Zubixa barria } bis
Andixek pasateko
Bera ta nobixa
Ole morena
Bera ta nobixa.

18

X Lorentzoak egin ei dau }
Jabonaduria } bis
Aititen prakar eta
Amaman gonia
Ole morena
Amaman gonia

19

X Aitita malutako }
Amama zalia } bis
Pipiak ere dio
Zuraren puntia
ole morena
Zuraren puntia

— Bigarengokuak —

20

X Markiña-Etxebariko
Joxepe Eramonia } bis
Aldian daruanaz
Zazpi aizpikona
Ole morena
Zazpi aizpikona

21-

X Neskazar zarandona
Akeria bekoki
Soñean ei dau kanaz
Zazpi gona gori
Ole morena
Zazpi gona gorix

-22-

X Aratoiak gambaran
Ara, iri, ara } bis
Egun sentia da ta
Ez egin algara
Ole morena
Ez egin algara

-23-

X Lena zan lenengua
Au da bigarena } bis
Ori esaten jako
Amaseigarena
Ole morena
Amaseigarena

-24-

X Gaztaña kolore
Begiton orekan } bis
Ondo engañau nasu
Berba labañekiñ
Ole morena
Berba labañekin

-~~1049~~- 1409-

Elgoibar

Gorostidi'tar Patxik
esanak 69 urtekuna

~~~ Lenengo kuak ~~~

X -18-
Mendi altuan elurá
Bota surtara eŧŧuria
Alaba ederen amak
Mutil zataren bildurá.

-19-
X Begira nago begira
Kamiño bide beri ra
Noiz etorriko ote da-ba
Nere maitea erira-

AZKENA

~~~ Bigarengo kuak ~~~

-25-
Goiak ariñak ~~diti~~ dituk }
Beiak ariñago } bis
Dazakan obetogo dakit
Arta joran baño
Ole morena
Arta joran baño

26
X Gabean eroridata }
Goizean lo gure } bis
Zukk era maitea
Osasunan gure
Ole morena
Osasunara gure.

-27-
X Zaikitzo polit ori }
Ojalaterna } bis
Poltsan diru gutxi ta
Bai enbusterna
Ole morena
Bai enbusterna

-28-
X Ai mutil anka luze }
Zaztzo arangalo } bis
Gaztztzoutzilo borteak
Barenetik dario.
Ole morena
Barenetik dario

-29-
X Altsolako bidian }
Amak alabia } bis
Salduko leukeolaba
Bere saladia.

Ole morena
Bere saladia
- 20 -
Oñakak ariñak eta
Buruna ariñago
Dantzan obetogo dakit
Orta jóran baño -

Amaya

- 1934 - Patxi'k
Gorostidi'tar
esanak 69 urtedunai
Elgoibar

- 1493 -

~ Trikitri ~

- 1 -
X Gorako saltoa ta
Berako brinkoa
Mutilak goien goien
Galtza gerikoa
- 2 -
X Atona trinkin trankun
Ganbela-pekoa
Y baño naigo nukek
Ogei urtekoa
3 -
X Amalau koxkabilu
Lau bara zintarekin
Ederki dantzatzen da
Gustokoarekin
- 4 -
X Oraingo mutil zarak
Zer dute merezi
Errekan beratuta
Lisiban erosi

-5-

X Mendian jaiotzen da
Gibel-urdiña
Orexa'ko neskatxen
kolore berdiña -

-6-

X Adios aingerue
Ba-noa Zerure
Zure esperantzetan
Pasa det mundue

-7-

X Arta jora noa
Luberi berire
Artoa joratuta
Belara sasie

-8-

X Ikaz kiñak joaten dii
Aiskorakin basoa
Nere gazte lagunak
Dantzarik asko da-

Malkoratar Josebik
esanak 84 urtedun
Orexa

## Fandangoak

X Nere andrea soroko zara
Beña ba-lu ezer-ez
Zazpi urtian soñean-lanka
Garbitzeko alperez...

X Joxepa Antoni kolore-gori
Zapata nia, oy ala.
Naizendukt baño, ez desu (izango)
kabalema senaria ----

X Lau, lau, lau,
Sardiña ba-kalau
Bost sei zazpi
Ez gabiltza gaizki
Antonio mnitu zak
Ipurdi ori
Antonio mnitu zak
Ipurdi ori.

Orexa

Paudaugo

X Gure erriyan bertan
Kapagin bat ba-san
Arek trabajatzen zun
Soñu ta dantzan
Aren irabaziya
Iru lau koarto
Ura iñolarian
Ñapaie-tako
Ñapara eran
Sabela bero,
Etxera juan da
Garbua gero.
Gisona garbo
Andria pena
Obetogo dakite
Auzoetan dena
-2-
Neri orengatikan
Ajola gutxi
Beris ere deteniau
Zaintzura busti ......
- - - - - - - - - - -
- - - - - - - - - - -
- - - - - - - - - -

Beste bat ...

Ategorrietako ~~danbolintera~~
Dan bolin terua
Zortzi koartorengatike
Jotsendua soma
Ay que la vi
Que la vi, que la vi
Como era de noche
Y no te conocí -

X Gure auzoan ba degu
Mutil bat kastaño
Diruak aitzen zaizkionean
Karajo ta koño.
Nik ala ezagutu det
Egun ontaño
Pestak aurea obea du
Ondorena baño.

Segurola'tar Josebek
esanak 98 urtekin

Oneda

## Dantza-abestijak

X Gora begiratu ta
Lañua agiri
Olako mutil oŕek
Zoratua dirudi

---

X Oŕako mutil oŕi
Dote-aŕiue.
Buruntzari zartzu bat
Iru zulokue

---

X Markiña-Etxebaŕiko
Joxe Leontzio
Laister egingo dogu
Markiñan fundaio.

---

X Makiñabat negaŕ eragin
~~Eragin~~ dion igaz eta aurten
Baŕura sartu nintzan
Nanpora ezin urten.

---

Jualen naizenian
Amerikketara .
Dirua bialduko dot
Adiskidietara.

---

X Elgetako kalian
San Roke gabian
Azal berdiak jan
Eta kapia gañian

---

X Jaikitzua zera baña
Jaiko zera oiñdiño
Usitzen ez ba-zera ere
Etzatut itziko.

---

X Ama zeuriak ezkondutako
Zeure moduko batekin
Dotia agindu dauct
Olo-lokia bost txitarekin

---

X Begira nago begira
Kamiño bide Baŕira
Noiz etoŕiko ete dan
Nere maitia eŕira.

---

X Neskato tarragona
Akerra bekoki;
Kolkuan darabiñaz
Lazpi arto zati;
Esan egion amari
Esan egion amari
Eman dagiñezarala
Sardiña buru bi.

---

X Euria dakar menditik
Ondarrua'ren ganetik
Estankat zapatatxurinik
Ba-noya Lekeitiotik.

---

Alpargatas tengo malas
Por la lebita,
Eztot asko irabaziko
Onela ibilita.

---

X Amari ipiñi nion
Gtz ori buelta
Jastia komprune ba-aiz

Garia salduta
Maiz etxian gosia
Kalera apainduta

---

X Alabatxua lo ta lo,
Nik oraiñ eta zuk gero
Biok egingo dogu
Zuk gura dozun
Orduren baten lo ta lo.

---

X Ez geratu mutillak
Eskondu bagian
Zartuta ez-tankazu
Alderdi obia
Norberaren andriak
Mantendu biarko ditu
Besteren umiak.

---

X Neuk ikusi nituan
Mendi punta baten
Amalau neska mutil
Morokila jaten.
Ai, ai, ai, amalau neska-mutil
Morokila jaten

- Markiñan batuak - 1684-

X Nere andrea andra ona da
Ausuak ala diñote
Erositako prezinetan
Pozik salduko neuke.

X Antonio Polonio
Pascual Bizente
Autziñako nobixiak
Aurian presente.

X ~~Apaiz batek bere alde~~ jarri tako bertsuak
[blue pencil above: "erripelarde"?]

— 1 —

Sebaldekua dala
Aur batayatzia
Gañera iltzen dana
Enteratutzia
Ez ba-zaio tokatzen
Jornalik artzia
Alperik da orduan
Estudiatzia. : ...

Ez dira ibiltzen eta
Ez ibiliko ere
Sebal de ez da iñor
Estudio zale.

— 2 —

Barberak edo mediku
Letrau'eri galde
Ia ote dabiltzan
Jornalikan gabe

Elgoibar /
Patxi Belaretari
entzunak

Atzo goisian Ermanim negon
Gaur Elgoibarko kalian
Fraile beriak sartu gaituzte
Lengo konbentu zarian
Erronka joten aitu gerade
Lengo aspaldi denian
Zein obe geran ikusteko
Ez gera leku txarrian.

Iñoiz juntatu gera sei bat bertsolari
Errekalde zara ta Juan Joxe Udarregi
Fernando Usurbil'go Gazteluko gorri
Erenteri'koa zan Xempelar jaun ori
Ni ostera Astiasu'koa Pelo Errotari - (bis)

~~Mikelete bateri~~
~~[illegible]~~

Elgoibar

Buenas noches esaten diot
Erantzin kan txapela
Ez dot uste nik jaun onek ba
Gaur preso sartuko nabela
Nere karteran obeki dago

Uria baño papela.
Pasa portik gañera tori
Komunioko Itzartela.

Bart ariatzian egondu naiz
Neure artian pentsatzen
Ez dituztela gauza guztiak
Aiñ ondo justifikatzen
Asko dabiltza beren ustian
Naziua gobernatzen
Lapur txikiak kartzelan sartu
Aundiak milojak osten -

Berar etxe ontetan ~~bizi~~
Bizi da Patraman
Laister aberasteko
Zer martxa daraman
Zerbait usteko asmuan
Gu ere geraman
Or konpondu dedila
Nai ez ba-du eman.

E. Agoibar

- 1 -

Azkoitira kantura
Didate deitu
Gison balientia
Naute eskojitu
¡Ai! pentsamentu auek
Artu ez ba-nitu
Talentua gaitu
Gutxiz oponitu
Ez gera ukitu
Enfermedade txarak
Bajatu gaitu.

- 2 -

Don Abade Jaun ori
Prantsesa da berez
Ni beriz Euskalduna
Pobria semez
Azkoitira juan nintzan
Mixeri dolorez
Peto degu juez
Nonbratua legez
Premina partiken
Ditu kantidadez
Ni utsik gelditua
Portatu gabez -

Usurbil'ko semia zan
Udaregi zana
Amaika egi eder
Munduan esana
Kantatu bai-alitus
Bateko dozena
Etzitzaion gustatuko
Aren almazena
Gu ez gerade iñor
Ura zan gizona.

Ugaibar

Patxi Belarreta'ri entzunak

— 1 —

~ Xenpelarek ~

Aisake Prantzisko erentzi
Uriengorako gorantzi
Ez al-akian or pipa eretzia
Etzala lizentzi
Jenio txarari utzi
Bestela ezurrak ausi
Giza legian nola bear dan
Ezin erakutsi

~ Musarok ~

— 2 —

Ba- det nik giza-legia
Beste astoak baño obia
Beste takikan etzait arrikitu
Arlote pobria
Jeniox nazu noblia
Kortesi pare galia
Neri ezurrak austeko ik nun
dek abilidadia.

Xempelar'ek —

Sartu dit ziri bat neri
Orain beste bat berari
Giza-legerik ez duanikan
Ez esan iñori
Eziñak dauzkak ugari
Mamiñik ez dek agiri
Ezur igara austen zala,
Ba'zekiat ori.

Musarok — 4º —

Aisak: (Frantziskok uréna)
Konplitu besak ordenak
Bestela pare egingo ditek
Begira daudenak
Nun dituk ik ahuenak
Menderatzeko baimenak
Ezur igarak ausiten ditzik
Indara duenak.

(Bersok) 1794 –

Patxi Belaretari artuak
Elgoibar

# Baseritar bat

— 1ª —

Jauna emen natorkizu
Ate au arturik
Botikea onetara
Nere baseritik

— 2ª —

Ate au botikara
Zertako dakarkizu
Oker zatoz, ariotsa,
Aurrian daukazu

— 3ª —

Ee, jauna, ongi nator
Entzun bezá dana
Gaur gure basarian
Pasatu zaizkuna.

4ª

Emaztia daukat
Oian eritu ta
Gaitzak arrapaturik
Mugitu ezinda.

— 5ª —

Sendagiña sarturik
Goizinian onela
Errezeta bat egin
Digu beriala

— 6ª —

Nola guk ez genduken
Ez paper ez plumik
Eta areil gutxiago
Eskribatzekorik.

— 7 —

Kare koskor bat diot
Berari ekarri.
Eta ate ontan dau
Errezeta jarri.

— 8 —

Azkar sendatu dediñ
Nere emaztia
Presaka nator, Jauna,
Arturik atia.

- 9 -

Irakuri besa
Oraiñ zer dakarien
Eta bekar bear dana
Juan nadin lenbait len

~~Onda'rean batuak~~

## Sardiña-saltzalea

- 1ª -

Jona bariñak petralik gabe-
Geriau grasia bildduta
Gesto sardiña gisen freskua
Beso aspian sartuta.

- 2 -

Neska motz, eder, begi zabal bat-
Arturik kale gusia
Lotsatu gabe dijoa deitzen
Sardiña bixi-bixia -

- 3 -

Beata moduko neska zar bat
Apaiz kalian bariena
Mantilapian ezkutaturik
Arpegiriko geiena.

- 4 -

¿Zenbatian da, zenbatian dozu?
Zortzi kuartuan ¿ lauran baliteke?
Exokatuten zait galdia
Ostua dala pentsatzen al dik.
Amar pezetako baldia.
Begira; kirieleisoiak eta (gautsiak) indul-
Orlan irabasten dira.

- 5 -

¿Naizu zei koarto?
Ez beorentzat bisungo dira obiak?
¡Leigero! galdetzen du
Andra juisio gabiak -

- 6 -

Neska zar orek galduazi(rau)
Iru dosena saltzia
(menesi lukke) ~~Eta ...~~ sardin zestua
Burritik beera sartzia -

- 7 -

Eta onela marmarika
Artuzik kale guztia
Lotsatu gabe dijoa deitzen
Sardiña bixi-bixia.

Ondarroa'n batuak

- Mariñela sagartotegian -

1ª

Donosti inguruko
Baserri batian
Sagardua zenkaten
Saltzen kupelian

- 2º -

Mariñel bat juan zan
Egarixaz ara
Baso pare bat edo
Iru eratera.

- 3º -

Aldendua zeduzkan
Lujmo ta grazia
Ain zan sagardo ura
Txaria ta gazia

- 4 -

Sartuta esan dio
Bete lendabizikoa
Andriak eman dio
Eskatutakoa
~~Pixka bat eran da~~

- 5 -

Pixka bat eran da
Buruari dar-dar
Txaria zala igarri
Zion berak azkar.

- 6 -

~~E~~ Pixkat egonda, dio:
Bete bigarrena
Ikarak juxtu-juxtu
Ustu zuan dena.

— 7ª —
Eta galdeturikan
Onek zenbat balio?
Txakur txiki baxo bat.
Bi amar xentimo.

— 8 —
Txakur aundi patxoa
Berekin zuana
Esanaz, eman dio
"Zori" be

— 9 —
— Eta ikusirikan
dio: "Au txaŕa da"
— Kupelian dagon
Sagardua ere ala da.

— 10 —
Zer nai dezu ba-da
Sagardu txaŕa eman da
Diru ona ematia?
Kostako zaizu neri
Adaŕa jotzia.

~~batnak~~
Ondaroan

— 1ª —
Eskotila kaleko
Sastreri batera
Baseritar bat juan zan
Galtzak erostera

— 2ª —
Juantzan ateratua
Txapela burutik
Kriantza onarekin
Jaŕi zan burutsik

— 3ª —
Esan zion desio
Zituala galtzak
Jai aundietarako
Oie-lezko beltzak

— 4 —
Kondesioarekin
Iletik-ilera
Zortzi peseta edo
Amar pagatzera

- 5 -

Lastriak begiratsen
Dio koritu aundiz
Burutik bietzara
Bein edo bi ~~[illegible]~~ aldiz.

- 6 -

Baita erantsun ere
Konforme zegola
Ika kunplitzen ba-sion
Gisona bezala

- 7 -

